

## IRABAZI ITURRIAK

Gure sarreren iturri bakarra gure produktuaren salmenta izango da. Ez dugu beste iturririk izango, bakarrik produktuaren salmenta zuzena. Negozio proposamena diseinatzeko orduan, nahiko zehatza egin dugu. Mahaien konposaketa eta sorkuntza asko kontrolatuko genuke, produktuak kalitate ezinhobea izateko, eta inbertsoreen grina gugan pizteko. Horrela, gure iturriak, mahaiak balore handikoak bilakatuko dira. Prezioak aldakorrak izango dira. Bezeroaren nahien arabera aldatu egingo da, adibidez, tamaina, kolorea eta inkluo haien ahalmen ekonomikora ere egokitu beharko ditugu prezioak gure marjinak estutu beharko ditugularik. Horrelako erabakiak kontuan hartuko ditugu bezeroaren segurtasuna etab. ziurtatzeko. Azkenik, mahaien kopuruaren arabera deskontuak ezarriko ditugu, erosketa prozesua errazteko eta bezeroak gehiago erakartzeko.

